



ESTADISTIKA
ORGANO
ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia*

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES
*Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



**ERAIKUNTZARI ETA
ETXEBIZITZARI BURUZKO
ESTADISTIKA (EEEE)**

Emaitza nagusiak

2021ko 2. hiruhilekoa

*Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Berriz ere, 2021eko bigarren hiruhilekoan, gora egin du obra handiko lizentzien kopuruak EAEn, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai urtetik urtera.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera (EEEE), 2021eko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek obra handiko 919 lizentzia eman zituzten. Emaidza horiek 2021eko lehen hiruhilekoan erregistratutakoak baino handiagoak dira, 62 lizentzia gehiago eman baitira, hau da, % 7,2ko igoera termino erlatiboetan. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, jarduera gehiago hazi da: 218 lizentzia gehiago onartu dira, hau da, % 31,1 gehiago.

Bizkaian eman dira obra handiko lizentzia gehien (% 43,9), 403 guztira. Ondoren, Araba dago, 266 lizentziarekin (guztizkoaren % 28,9), eta Gipuzkoan 250 lizentziarekin (lizentzia guztien % 27,2), biak ere oso antzeko balioekin.

Arabian eta Gipuzkoan (honetan batez ere) gora egin du obra handiko lizentzien kopuruak 2021eko lehen hiruhilekoaren eta 2021eko bigarrenaren artean. Bizkaian, aldiz, % 5,2ko jaitsiera izan da (22 lizentzia gutxiago) hiruhilekoen artean. Gipuzkoan 47 lizentzia gehiago eman dira (% 23,2ko igoera), eta Araban, berriz, zertxobait gehiago: 37 lizentzia gehiago (termino erlatiboetan, % 16,2ko igoera).

Urte arteko emaitzei dagokienez, hiru lurraldeek emaitza positiboak izan dituzte, eta Araban izan da igoera handiena. Araban, 90 lizentzia gehiago eman dira, kopuru absolutuetan, 2020ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta; hau da, % 51,1eko igoera erlatiboa izan da. Gipuzkoan, 83 lizentzia gehiago eman dira urte batetik bestera, % 49,7ko igoera erlatiboarekin. Bizkaian, emandako lizentzien kopuruak igoera apalagoa izan du: 45 lizentzia eman dira kopuru absolutuetan, hau da, % 12,6ko igoera izan da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Ohi bezala, 2021eko bigarren hiruhilekoan emandako lizentzia gehienek birgaitze-obrei lotuta jarraitzen dute (% 80,7).

2021eko bigarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia moten** arabera banaketan aurreko hiruhilekoetan hautemandako joerari eutsi zaio, eta argi eta garbi nagusi dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehazki, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 80,7 dira, lizentzien % 16,4 oin berriko eraikinetarako eta % 2,8 eraispenetarako. Kopuru absolutuak honako hauek dira: birgaitzeko 742 lizentzia (2021eko lehen hiruhilekoan baino 25 gehiago, % 3,5eko igoerarekin), eraikuntza berrietarako 151 lizentzia (aurreko hiruhilekoan erregistratutakoak baino 33 gehiago eta % 28,0ko igoera erlatiboa adierazten dutenak) eta eraisteko 26 lizentzia, lehen hiruhilekoan erregistratutakoak baino 4 gehiago (% 18,2).



Eraikuntza berriko lizentziek eta birgaitzeko lizentziek emandako lizentzia guztiekiko duten zatiak ñabardura txikiak ditu aztertzen den lurralde historikoaren arabera. Araban eta Gipuzkoan eraikuntza berriak pisu erlatibo handixeagoa du Bizkaian baino: emandako obra handiko lizentzia guztien % 19,9 eta % 18,4, hurrenez hurren; Bizkaian, berriz, % 12,9. Birgaitzeko obra handiko lizentzietan dagokienez, Bizkaian lizentzia horiek emandako lizentzia guztien % 86,1 dira; proportzio hori % 77,2koa da Gipuzkoan eta % 75,9koa Araban.

1. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2021eko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko		
	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %	
EAE	Guztira	919	100,0	62	7,2	218	31,1
	Eraikuntza berria	151	16,4	33	28,0	52	52,5
	Birgaitzea	742	80,7	25	3,5	150	25,3
	Eraispena	26	2,8	4	18,2	16	160,0
Araba	Guztira	266	100,0	37	16,2	90	51,1
	Eraikuntza berria	53	19,9	11	26,2	26	96,3
	Birgaitzea	202	75,9	21	11,6	56	38,4
	Eraispena	11	4,1	5	83,3	8	266,7
Bizkaia	Guztira	403	100,0	-22	-5,2	45	12,6
	Eraikuntza berria	52	12,9	8	18,2	11	26,8
	Birgaitzea	347	86,1	-26	-7,0	34	10,9
	Eraispena	4	1,0	-4	-50,0	0	0,0
Gipuzkoa	Guztira	250	100,0	47	23,2	83	49,7
	Eraikuntza berria	46	18,4	14	43,8	15	48,4
	Birgaitzea	193	77,2	30	18,4	60	45,1
	Eraispena	11	4,4	3	37,5	8	266,7

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa

1. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa



2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoen artean, hiru lurralde historikoek gora egin dute eraikuntza berriko lizentzien kopuruan. Kopuru erlatiboetan, Gipuzkoak egin du gora gehien (% 43,8, 14 lizentzia gehiago); ondoren, Arabak (% 26,2, 11 lizentzia gehiago) eta Bizkaiak (eraikuntza berriko 8 lizentzia gehiago, % 18,2).

Birgaitzeko lanen kasuan, Bizkaian soilik egin du behera lizentzien kopuruak (-% 7,0); Gipuzkoan % 18,4 egin du gora (30 lizentzia) eta Araban % 11,6 (21 lizentzia gehiago).

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, EAE osoan, obra berriko lizentzien kopuruak % 52,5 egin du gora, obra handiko 52 lizentzia gehiago eman baitira 2020ko bigarren hiruhilekoan baino. Hiru lurraldeek goranzko pisu erlatiboa dute, eta Arabako hazkundea nabarmentzen da: % 96,3 termino erlatiboetan, 26 lizentzia gehiago eman baitira termino absolutuetan. Gipuzkoan 15 lizentzia gehiago eman dira (% 48,4ko igoera) eta Bizkaian, berriz, urtetik urterako igoera apalagoa izan da termino erlatiboetan: 11 lizentzia gehiago (% 26,8).

Era berean, EAEn birgaitzeko lizentzien kopuruak gora egin du 2020ko bigarren hiruhilekoaren eta 2021eko hiruhileko beraren artean (% 25,3). Igoera hori hiru lurraldeetan banatu da, eta Gipuzkoan izan da igoerarik handiena (% 45,1, 60 lizentziari dagokionez). Araban % 38,4ko igoera izan da (56 lizentzia gehiago) eta Bizkaian, berriz, % 10,9koa (34 lizentzia gehiago).

2021eko bigarren hiruhilekoan, urtetik urterako aldakuntza metatuek joera aldatu dute, eta oro har gora egin dute obra handiko lizentzietan, hiru modalitateetan.

Urteko datu metatu horiek 2020ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2021eko bigarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte, aurreko urteetako hiruhileko berdinetako urteko metatuarekin alderatuta (2019ko hirugarren hiruhilekotik 2020ko bigarrenera). Kopuru absolutuetan, 250 lizentzia gehiago eman dira, aurreko aldi konparagarrian baino % 8,3 gehiago. Hazkunde handienak, termino horietan, eraipen-lizentzietan erregistratu dira nagusiki (% 39,0 egin du gora: 23 lizentzia gehiago). Eraikuntza berrikoak % 10,8 igo dira, 44 lizentzietan. Termino erlatibo horietan, hirugarren lekuan agertuko litzateke birgaitzeko lizentzien gorakada (% 7,2), nahiz eta termino absolutuetan aurreko aldi metatuan baino 183 lizentzia gehiago izan.

2021eko bigarren hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaerak alde esanguratsuak ditu, bai termino absolutuetan, bai erlatiboetan, hiru lurraldeen artean.

Urtetik urtera lurralde historikoen arabera metatutako datuen azterketak datu positiboak ematen ditu, bai Araban, bai, neurri txikiagoan, Gipuzkoan; Bizkaian, aldiz, zertxobait jaitsi da emandako lizentzien kopurua.



Arabako % 21,8ko igoera izan da (158 lizentzia gehiago eman dira) azken urtean metatutako lizentzien kopuruan, urteko aldi berarekin alderatuta. Gora egin dute eraikuntza berriko lizentziek (% 16,3, 21 lizentzia gehiagori dagozkienak), birgaitzeko lizentziek (% 20,7, 120 lizentziari dagozkienak) eta eraisteko lizentziek (17 lizentzia gehiago) (% 106,3).

2. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urteko urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2020ko 3. Hiruhilekotik 2021eko 2. Hiruhilekora		Metatua 2019ko3. Hiruhilekotik 2020ko 2. Hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Euskadi	Guztira	3.249	100,0	2.999	100,0	250	8,3
	Eraikuntza berria	451	13,9	407	13,6	44	10,8
	Birgaitzea	2.716	83,6	2.533	84,5	183	7,2
	Eraispena	82	2,5	59	2,0	23	39,0
Araba	Guztira	883	100,0	725	100,0	158	21,8
	Eraikuntza berria	150	17,0	129	17,8	21	16,3
	Birgaitzea	700	79,3	580	80,0	120	20,7
	Eraispena	33	3,7	16	2,2	17	106,3
Bizkaia	Guztira	1.591	100,0	1.592	100,0	-1	-0,1
	Eraikuntza berria	178	11,2	159	10,0	19	11,9
	Birgaitzea	1.391	87,4	1.413	88,8	-22	-1,6
	Eraispena	22	1,4	20	1,3	2	10,0
Gipuzkoa	Guztira	775	100,0	682	100,0	93	13,6
	Eraikuntza berria	123	15,9	119	17,4	4	3,4
	Birgaitzea	625	80,6	540	79,2	85	15,7
	Eraispena	27	3,5	23	3,4	4	17,4

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa

2. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa



Gipuzkoan, 93 lizentzia gehiago eman dira, eta horrek obra-lizentzia guztietan urte arteko kopuru metatua % 13,6 igo dela esan nahi du. Balio erlatiboari dagokienez, hazkunderik handiena (% 17,4: 4 lizentzia) eraispren-lizentziei dagokie. Birgaitzeko lizentziek % 15,7 egin dute gora (85 lizentzia balio absolutuetan), eta oin berrikoek 4 lizentzia gehiago izan dituzte, % 3,4 hazi baitira.

Bizkaia da, bestalde, obra-lizentzien bilakaerari buruzko datu metatuetan datu negatiboak erregistratu dituen lurralde bakarra. Jaitsiera minimoa izan bada ere (lizentzia 1: -% 0,1), 22 lizentzia gutxiago eman dira birgaitzeko lizentzietan (-% 1,6), eta horiek ia konpentsatzen dira eraikuntza berrikoarekin (19 lizentzia; % 11,9) eta eraisteko lizentziekin (2 lizentzia; % 10,0).

3. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. 1998-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

2021eko bigarren hiruhilekoan gora egin dute bizitegi-erabilerarako nahiz bizitegi-erabilerarako ez diren obra handiko lizentziek. Bi kasuetan, urtetik urterako igoera handiagoa da hiruhilekoa baino.

2021eko bigarren hiruhilekoan, obra handiko 893 lizentzia eman ziren, eraikuntza berriak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (660, hau da, guztizkoaren % 73,9) **bizitegi-erabilerarako** proiektuekin lotu ziren; gainerako 233 lizentziak, berriz, guztizkoaren % 26,1, bizitegi-erabilerarako ez ziren proiektuekin lotu ziren¹.

2021eko bigarren hiruhilekoan emandako **bizitegi-erabilerarako ez** diren obra-lizentzien xede sektorialari dagokionez, ohi bezala, zerbitzu-erabilerarako lizentziak dira nagusi (lizentzia guztien % 64,4). Industriaren eta energiaren sektorera edo lehen sektorera bideratutakoak % 25,8 eta % 9,9 dira, hurrenez hurren.

Lizentzien **hiruhilekoko bilakaerari** dagokionez, 2021eko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean, emandako lizentzien kopuruak % 6,9 egin du gora (58 lizentzia gehiago); bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentzien kopuruak, berriz, % 13,1 egin du gora (27 lizentzia), bizitegi-erabilerakoak baino (% 4,9 gehiago, 31 lizentzia) aurreko hiruhilekoarekin alderatuta:

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematearen emaitza, 2021eko lehen bi hiruhilekoen artean, industriaren eta energiaren sektorean 23 lizentzia gehiago ematearekin lotuta dago nagusiki (% 62,2). Zerbitzu-sektorea, 4 lizentzia gehiagorekin, % 2,7 igo da lehen sektorean, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

2020ko eta 2021eko bigarren hiruhilekoen arteko **urteko** alderaketa positiboa izan da, bai bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (% 21,3, 116 lizentziari dagokienez), bai bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez: 86 lizentzia gehiago (% 58,5).

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik kanpo geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat izapidetu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla (bizitegirakoak eta bizitegirakoak ez direnak).



3. Taula Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LITZENTZIAK	2021eko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
Guztira	893	100,0	58	6,9	202	29,2
Bizitegia	660	73,9	31	4,9	116	21,3
Bizitegiaz bestelakoa	233	26,1	27	13,1	86	58,5
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	23	9,9	0	0,0	8	53,3
• Industria eta energia	60	25,8	23	62,2	35	140,0
• Zerbitzuak	150	64,4	4	2,7	43	40,2

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa

4. Grafikoa Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak emateko barne-dinamikari dagokionez, 2020ko bigarren hiruhilekoaren eta 2021eko aldi beraren artean, industria- eta energia-sektorea hazi da gehien (% 140) (35 lizentzia gehiago). Kopuru absolutuetan, zerbitzuen sektorea da gehien hazi dena, duela urtebete baino 43 lizentzia gehiago eman baititu (% 40,2). Lehen sektoreak ere gora egin du, baina termino apalagoetan: 8 lizentzia (% 53,3).

Urtetik urtera metatutako kopuruei dagokienez, aldatu egin da azken hiruhilekoetako joera, eta gora egin dute emandako lizentzien eta horien erabileren adierazle guztiak.

2020ko hirugarren hiruhilekotik 2021eko bigarren hiruhilekora arte metatutako urte arteko kopuruak aurreko urteetako hiruhileko berberei dagozkienekin alderatzean, datuek bizitegi-erabilerarako lizentzien kopuruak (% 5,9) eta bizitegi-erabilerarako ez direnak (% 14,2) gora egin dutela erakusten dute.

4. Taula Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urteik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)


OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatuta 2020ko 3. Hiruhilekotik 2021eko 2. Hiruhilekora		Metatuta 2019ko 3. Hiruhilekotik 2020ko 2. Hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Guztira	3.167	100,0	2.940	100,0	227	7,7
Bizitegia	2.436	76,9	2.300	78,2	136	5,9
Bizitegi bezelakoa	731	23,1	640	21,8	91	14,2
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	78	10,7	48	7,5	30	62,5
• Industria eta energia	165	22,6	157	24,5	8	5,1
• Zerbitzuak	488	66,8	435	68,0	53	12,2

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obrerako emandako lizentziei dagokienez, 2021eko bigarren hiruhilekoko urteko datu metatuek hazkundeak izan dituzte hiru sektoreetan: lehen sektorea da hazkunde handiena izan duena, % 62,5ekoa, aurreko aldiarekin alderatuta (30 lizentzia gehiago). Hirugarren sektoreak (zerbitzuak) 53 lizentzia gehiago eman ditu (% 12,2 termino erlatiboetan). Bestalde, bigarren mailako lizentzia arinagoa da, % 5,1eko igoerarekin, eta hori da hautematen diren 8 lizentzia gehiagokoek adierazten dutena.

5. Grafikoa Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa



3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

2021eko bigarren hiruhilekoan, nabarmen egin du gora obra handiko lizentziek eragindako etxebizitzaren bolumenak, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai urte artekoan (% 43 eta % 75, hurrenez hurren). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta hautemandako igoera guztia oin berriko eraikuntzari zor zaio soilik.

2021eko bigarren hiruhilekoan bizitegi-erabilerarako emandako obra handiko 660 lizentziek berekin dakarte 1.682 etxebizitzarekin lotutako jarduketak egitea (aurreko hiruhilekoan baino 507 gehiago). Etxebizitza horietatik 1.289 eraikuntza berriko jarduketekin lotuta daude (guztien % 76,6 dira), eta gainerako 393 etxebizitzak birgaitze-prozesuekin lotuta daude².

Komeni da zehaztea inplikaturako oin berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ditzakeela hiru hilean behin, sustapenen tamainaren arabera. Bigarren hiruhileko honetan ikusten da etxebizitza-kopuruaren igoera guztia oin berriko etxebizitzari dagokien artean dagoela (508 etxebizitza, hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 65 gehiago); izan ere, birgaitzaren kasuan, etxebizitza batean egin du behera (-% 0,3) 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Urtetik urterako alderaketak hazkunde esanguratsuak izan ditu, bai eraikuntza berrietan (% 79,5: 571 etxebizitza), bai birgaitzeko lizentzietan (% 60,4: 148 etxebizitza).

Aurreko hiruhilekoan jasotako datuekin alderatuta, Bizkaian eta, batez ere, Gipuzkoan, eraikuntza berriko jarduketetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du gora. Araban, beherakada txiki bat ikusten da esku-hartze mota horretarako aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan.

2021eko bigarren hiruhilekoan, **Gipuzkoan** 645 etxebizitza zeuden aurreikusita aurreikusitako jarduketetan, horietatik % 84,5 oin berrikoak (545 etxebizitza). Lurralde horretan, oin berriko etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du gora aurreko hiruhilekoarekin (% 182,4) eta duela urtebeteko hiruhileko berarekin (% 395,5) alderatuta. Birgaitze-jarduketekin lotutako etxebizitzaren kopuruari dagokionez (100 etxebizitza), horien bolumenak okerrera egin du lehen hiruhilekoarekin alderatuta (-% 28,1), nahiz eta aurreikuspenek apur bat gora egin duten urte arteko kopuruetan (% 11,1).

² Birgaitutako etxebizitzak zenbatzean, ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiago duten eraikinetako etxebizitzak, baldin eta horietan birgaitze-obrak egiten badira eta horiek eraikinaren elementu komunei soilik eragiten badiete. Ukitutako birgaitutako etxebizitzak zenbatzean, honako esku-hartze hauek bakarrik hartzen dira kontuan: eraikinak edo familia bakarreko etxebizitzak osorik birgaitzea eta etxebizitza bat baino gehiago dituen eraikin baten barruan bao bat edo batzuk (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da garatutako banantze- edo bat-egite-prozesuen ondoriozko etxebizitza-kopurua).



Bizkaian, bestalde, 554 etxebizitzatarako jarduketak egin dira 2021eko bigarren hiruhilekoan. Aurreikuspenen arabera, 379 etxebizitza berri eraikiko dira, ikuspegi ezkorrekin, duela hamabi hilabetekoarekin alderatuta (-% 29,8ko aldakuntza, 161 etxebizitza gutxiago), baina aurreko hiruhilekoan baino askoz baikorragoa, ia % 78ko igoerarekin, hau da, 166 etxebizitza gehiago. Birgaitzeko jarduerari dagokionez, 8 etxebizitza gutxiago (-% 4,4) izan dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 72 etxebizitza gehiago (% 69,9) duela urtebeteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Araban, azkenik, 483 etxebizitzatarako jarduketak daude, horietatik 365 oin berrikoak. 2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoen artean aurreikusitako etxebizitzen kopuruak apur bat behera egin du eraikuntza berriari lotutako ekintzetan (-% 2,7: 10 etxebizitza gutxiago) eta birgaitzeko jarduketetan aurreikusitako etxebizitzen kopuruak gora egin du (% 63,9, 46 etxebizitza gehiago). Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, eraikuntza berriko etxebizitzen kopuruak nabarmen egin du gora (% 436,8, 297 etxebizitzari dagozkie), eta birgaitzeko etxebizitzen kopuruak zertxobait behera egin du (% 126,9: 66 etxebizitza gehiago).

5. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2021eko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	1.682	100,0	507	43,1	719	74,7
	Eraikuntza berria	1.289	76,6	508	65,0	571	79,5
	Birgaitzea	393	23,4	-1	-0,3	148	60,4
Araba	Guztira	483	100,0	36	8,1	363	302,5
	Eraikuntza berria	365	75,6	-10	-2,7	297	436,8
	Birgaitzea	118	24,4	46	63,9	66	126,9
Bizkaia	Guztira	554	100,0	158	39,9	-89	-13,8
	Eraikuntza berria	379	68,4	166	77,9	-161	-29,8
	Birgaitzea	175	31,6	-8	-4,4	72	69,9
Gipuzkoa	Guztira	645	100,0	313	94,3	445	222,5
	Eraikuntza berria	545	84,5	352	182,4	435	395,5
	Birgaitzea	100	15,5	-39	-28,1	10	11,1



6. Grafikoa Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa

Urtetik urterako kopuru metatuei dagokienez, EAEn aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak gora egin du: birgaitzeko etxebizitzaren kasuan, pisu handixeagoa dute, termino erlatibotan, oin berriko etxebizitzek.

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhilekoko gorabehera handiak daudenez, komenigarria da emaitzen **urteko dinamika metatuan** zentratzea azterketa. Horrela jokatzuz gero, egiaztatu da 2021eko bigarren hiruhilekora arte metatutako bizitegi-erabilerarako urteko jarduerak 5.032 etxebizitzari eragiten diela guztira (3.572 oin berriko eraikuntzakoak eta 1.460 birgaitzeko). Horrek 2020ko bigarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerarekin alderatuta % 16,1eko igoera egon dela esan nahi du (699 etxebizitza gehiago). Igoera horrek intentsitate desberdinarekin eragiten die, termino erlatiboetan, eraikuntza berriko jarduketari (% 8,6) eta birgaitzearekin lotutakoei (% 39,8).

6. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA	Metatua 2020ko 3. Hiruhilekotik 2021eko 2. Hiruhilekora		Metatua 2019ko 3. Hiruhilekotik 2020ko 2. Hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta		
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	
Euskadi	Guztira	5.032	100,0	4.333	100,0	699	16,1
	Eraikuntza berria	3.572	71,0	3.289	75,9	283	8,6
	Birgaitzea	1.460	29,0	1.044	24,1	416	39,8
Araba	Guztira	1.402	100,0	942	100,0	460	48,8
	Eraikuntza berria	1.046	74,6	737	78,2	309	41,9
	Birgaitzea	356	25,4	205	21,8	151	73,7
Bizkaia	Guztira	1.777	100,0	1.975	100,0	-198	-10,0
	Eraikuntza berria	1.131	63,6	1.498	75,8	-367	-24,5
	Birgaitzea	646	36,4	477	24,2	169	35,4
Gipuzkoa	Guztira	1.853	100,0	1.416	100,0	437	30,9
	Eraikuntza berria	1.395	75,3	1.054	74,4	341	32,4
	Birgaitzea	458	24,7	362	25,6	96	26,5

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa



7. Grafikoa Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak
(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 2. hiruhilekoa

Etxebizitzaren arloan aurreikusitako jarduketa metatuen lurralde-azterketan, gorakada handiak Araban (% 48,8; 460 etxebizitza gehiagori dagokienez) eta Gipuzkoan (% 30,9; 437 etxebizitza gehiago) ikusten dira, eta nolabaiteko beherakada Bizkaian (-% 10,0; 198 etxebizitza gutxiago).

Bizkaiko lurraldearen beherakada eraikuntza berriko etxebizitzaren artean izandako beherakadak eragin du; izan ere, birgaitzeko jarduketek dagokienez, hiru lurraldeetan etxebizitzaren kopuruak gora egin du.

Hain zuzen ere, etxebizitza berrien eraikuntzaren kasuan, Araban (% 41,9; 309 etxebizitza) eta Gipuzkoan (% 32,4; 341 etxebizitza) jarduerak gora egin du, eta Bizkaian, berriz, datuak negatiboak izan dira: -% 24,5, hau da, 367 etxebizitza gutxiago.

Eta, esan bezala, birgaitzeko jarduketetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruak gora egin du hiru lurraldeetan; hala, Araban % 73,7 egin du gora (151 etxebizitza), Bizkaian % 35,4 (169 etxebizitza) eta Gipuzkoan % 26,5 (96 etxebizitza).



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta EAEko 251 udalek hileroko bidaltzen dute horri buruzko informazioa. Hilero igorritako informazioa udalerrian emandako obra handiko lizentziei eta Udalak etxebizitza babestuak sustatzeko lurzorua erosteari buruzkoa da. Aldi berean, udalak eskuragarri duen alokairuko etxebizitza-parkeari buruzko informazioa jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) helburu orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den jakitea da. Udalek emandako obra handiko lizentzietatik abiatuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaitzea edo eraistea), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak ezagutu nahi dira.

Definizioak:

Obra handiko lizentziak Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, eraikuntza berriko edozein eraikuntza-mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan ala ez. Baimenaren helburua lizentzia-eskaera hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin bat datorrela egiaztatzea da

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat:

- a. **Eraikuntza berriko obra:** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldeztatik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra:** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldeztatik eraispen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin behar da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso behar da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke:

- Handitzeko obra: lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzorua gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak honako hauek dira:

- Eraikinak handitzea, horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz.
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzan edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

c. Eraispin-obra: Eraikin bat guztiz edo partzialki eraistea da



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2021eko 2. hiruhilekoa

Emaita nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK.....	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	10
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK.....	14
TAULEN AURKIBIDEA	16
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	16

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa	3
2. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. Taula	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa	8
4. Taula	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
5. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoa	11
6. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	12

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa	3
2. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. 1998-2021	6
4. Grafikoa	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa	8
5. Grafikoa	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 2. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
6. Grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 2. hiruhilekoa	12
7. Grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	13

Informazio gehiagorako:

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estadistika Organo Espezifikoren zerbitzu Zuzendaritza

/Donostia / San Sebastián kalea, 101010 Vitoria-Gasteiz

Telefono zenbakia: +34-945-01 69 61; Fax: +34-945-01 98 56

Webgunea: www.euskadi.eus/estadisticas-vivienda

www.euskadi.eus/estadisticas-territoriales

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/es/

E-maila: estadisticas-vivienda@euskadi.eus